

Don Miguel-en Oroiz

Ai, nire Unamuno zahar, gaixoa! Zein deskoloratua geratu haizen "liberal" horien artean...

Merezi, edozer gauza mereziko huen: horixe bakarrik ez. Hi, liberala? Arranpalo postmoderno adefesio bat eginda utzi haute.

Zergatik eskatu behar ziaten, nori eta hiri, liberala izatea, modernoa izatea, arrazoizale eta intelektuala izatea, irekia eta zabala eta unibertsala izatea, ez haizen guztia izatea justu-justu; zergatik ez egiaz hirea dena, irrazionalkeriaren bortitza, bizitzaren sentimendu tragikoa, hilezkortasun-antsia, arima mistiko kiskalia, afrikanoa eta basamortutarra, liberalkeria guztien odoltzerainoko destainu olinpikoa, hire intolerantzia kixotear guztiz partikularra, hire noizbehinkako espainolkeria *farouche* barregarri hura bera?

Hezur-muinetarainoko "Dios es el deseo que tenemos de serlo" intolerante bat izan hintzen hi. Baina hori gaur ez duk eramaten. Jainkoa ez, eta intolerantzia gutxiago. Hori baino modernoagoak gaituk orain.

Monologoaren artista bakar hori, edozein Madame de Recamier-en saloe-bazterretako dialogoetan eser erazi nahi izan haute, solaskideen munduko txolinkeria guztiak arduraz kontsideratzen bezala hire miopiarekin.

Hiri bost axola zitzaian hire borroka nola borrokatu, "con razón, sin razón o contra ella". Baina orain arrazoizkotasun

domestikatu emeenaren protagonistarena (proto-agonistarena!) jokatu behar duk.

Gaztelako lur gorrietako lur izaten enpeinatu hintzen beti ("tú me levantas, tierra de Castilla"). Mesprezatu egin hituen edonongo modernistak eta progresistak eta "los papanatas que están bajo la sugestión de lo europeo". Horra, bada, non orain kosmopolita aurpegiabetu gisa paseatzen hauten lainoetan, haizen bezalako mutiko unibertsal pihoa hi.

Horretarakoxe behar haute.

Ortegarerekin hasita, liberalek inoiz ez hinduten piperrrik ulertu (Bilboko Mons. Gurpidek berak, bere eramanezin okerean, ez ote hinduen zuzenago ulertzen?). Gaur apenas hobeto ari dituk egiten beren komedia. Baina jadanik ez duk tristeza ere.

Aitortuko diat: erdi-penaz ari nauk hire omenaldiok sentitzen. Oraindik debozioa bezalako zerbait geratzen zaidak. Jaiotatik aparte, neure aldetik joan nintzaian hire Salamancan bisitatzera, joandako urriaren lehen egun doratueta, hirea Salamanca delako eta hirea meditazioan paseatzea izan zelako Salamancan, "soñadero feliz de mi costumbre". Eta kasik satisfaktioz, ari nauk, halere, laudoriozko faltseteak urrundik sentitzen.

Pozik, azkenean, omendatzaile horien artean hire behialako irakurle eta zale euskaldunik ageri ez delako. Ikusten duk, jende kultu unibertsalaren zirkulu goi horietan oraindik ez gaudek ametituak. Martin Ugalde bat, hire hizkuntz dramaren ikerlea (zer zekian tutik Ortegak: "Fue un gran escritor. Pero conviene decir que era vasco, y que su castellano era aprendido"... Eta zer León Felipek?). Edo Txillardegi bat. San Martin bat, orain baino lehen, 1960an *Olerti*-n omentzen hinduen Otsalar hura, eta 68an *Jakin* honetan bertan aurkezten hinduena. Eta zeinek cza gutzen dik, omendatzaile txit liberal, kultu, ireki, unibertsal guzti horietatik, hire Salbatoreren irakurketa? Hori dena ignoratzea hobe zegok, euskaldunok betiko barbaro itsu-itxiak garelaren esaten jarraitzeko. Nola destakatuko hituzke berak liberal bezala, bestela, gure aldean?

Ahalegintzen badituk ere, ez haiz sekula beraienagoa izango gurea baino. Heu izan hintzan horretan ahalegintzen lehena, egia esateko, euskararekiko hire jarrera ez prezeski eta propio bereziki liberalekin. *Malgré tout*, hirea gure kasta borrokara kondenatu hauxe duk.

Mundua asko zebilek eta gauzak hemen ez dituk jarri oraingo gazteei, hire *Kristautasunaren Agonia ez-ekiz*, agian *El Cristo de Velázquez* bera gustatzeko moduan. Antzina gogoz irakurri izan hindugunok ere, ez niake esango aspaldion asko

irakurri izan haugunik. Egon duk, dena dela, hire euskal belau-
naldi bat, hirekin konforme pentsatu gabe, hirekin sentitu due-
na. Urteak joan ahala gero eta hiregandik urrunago, halere, go-
goan hau oraindik, buruz gogoratzen dik oraindik hire hainbat
poema:

“Alto soto de torres que al ponerse
tras las encinas que el celaje esmaltan
dora a los rayos de su lumbre el padre
sol de Castilla...”.

Hago hire Salamancan: ez haugu imitatu nahi, baina han
maite haugu. Gutxien-gutxiena modernia faltsu honetara tras-
bestitua nahi hindukegu. Han egonez bakarrik haiz egiaz gurea,
Bilbo bustira birlandaketa artifizial folklorikoak eginez baino,
han haiezlako hi heu, noizbait bederen tormentatu gintucna. Ez
moderno, ez arrazional, ez liberal, ez unibertsal, ez inolako
konbentzioetakoa, baina heure bakardadeko antsia eta borroka
amore eman ezina. Seguruenik ideia bakar batean konforme
egon ezin gintzaizkiona, baina barnean beti borrokan aritu izan
zitzaiquina. Hori haiz gurea. Machadoren “este donquijotesco
don Miguel de Unamuno, fuerte vasco...”. Gure aldetik, kasik
satisfakzioz uzten zicagu beste horiei gainerakoa: hire aktualita-
tea, modernotasuna, liberaltasuna, etab., etab.: sekula izan ez
haizena, edozeinen omenalditan erreplilatzen den lastoa. Gurea,
omenaldi horietan ez egotea, izango duk. ■ J. Azurmendi.

Portugesa: Hizkuntza arautzen

1986ko uda-udazkenetan, TBn, egunkari eta kultur aldizka-
rietan behin eta berriz agertu da, Portugalen bezala Brasilen,
Angola edo Mozambiken, hizkuntzaren batasun idatziarekiko
eztabaida lasai edo ozpindua. Esamesak, mahainguruak eta ko-
miki zirrikagarriak ere ez dira falta izan. Komikien bilketaren bat
ere egin du aldizkariren batek. Baina zertaz izan da hori dena?

Rio de Janeiro-ko “Academia Brasileira de Letras”en egoi-
tzan, 1986ko Maiatzaren 6-12etan, zazpi Estatuetakoko ordezkari-
ak bildu ziren portugezari batasun ortografikoa emateko: Bra-
sil, Portugal, Cabo Verde, Angola, São Tomé e Príncipe eta
Mozambike. Nazioarteko eta akademiarteko agiri berriak badu
esanahirik bere izenburu bitxian: “Bases Analíticas de Ortogra-
fia Simplificada de Língua Portuguesa em 1945, renegociadas
em 1975 e consolidadas em 1986”. Agirian dago, beraz: Arau
hauek historiaurreko luzea izan dute, aurtengora iritsi aurretik.